



# LEHEN MAILAN JARRAITUKO DU BIDEBIDE IBIZAK

Jaitsiera fasea jokutzen ari da saskibaloi talde tolosarra; bi jardunaldiren faltan maila ziurtaturik dauka 6

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Asteartea  
2010-05-11

VIII. URTEA 1997. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Erniopeko VII. mendi martxan paraje ederrak ikusteko aukera izan zuten. INAKI LOPETEGI

## BERASTEGIN ETA ERNION MENDIZALEEK EZ DUTE HUTS EGIN

**MENDIA** Antolatzaileak «oso gustura» agertu dira jendearen erantzunarekin; Berastegin 46 haurrek 3 orduko ibilbidea egin zuten 4



Lizartzako haurrek eskulaneekin jarri zuten martxan XXXI. Eskolaren Astea. ESTI EZEIZA

## XXXI. ESKOLAREN ASTEA MARTXAN DA

**LIZARTZA** Lehen egunean Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek eskulanak egin zituzten; ostiralean amaituko da ekimena 5

## «Nekazaritzak duen garrantzia gizarteratu behar dugu»

**TOLOSA** Landa Ingurunearen Astearen lehen ekitaldia atzo burutu zuten Zerkausian; Juanan Gutierrezek Gipuzkoa lurralde «berezia» dela onartu zuen bertan 2

## Osakidetzak «aldaketak egin nahi ditu» Osasun Zentroan

**VILLABONA** Besteak beste, larunbatetan Zentroa itxi egin nahi dutela salatu du Josu Arrietak 3

**TITULAZIO OFIZIALAK**

**ceinpro**

ERDI ETA GOI MAILAKO  
HEZIKETA ZIKLOAK  
DISEINU GRAFIKOAN

INFORMAZIOA 945 310 873

Nazioarteko Lehiaketak  
Praktikak atzerrian

## Zumardiaundia itxura berria hartzen hasi da

**GIZARTEA** • Zumardiaundia berdegune berri bilakatu nahi du Tolosako Udalak eta «herritarrentzat aisialdi eta gozamenerako eremua izatea». Bada, Tolosa eta Ibarra batzen dituen gune hau berritzen dihardute azken asteetan, eta itxura erabat berriturik dagoela atzeman daiteke. Errekaren bidea aldatu dute antzina zuen bidea errekuiperatuz, berdegune gehiago jarri dituzte, eta lehengo zuhaitzak kendu dituzte berriki landatzeko. Obrek 1.200.000 euroko aurrekontua dute, eta urtea bukatu baino lehen amaitzea espero dute. ir.



## «Gure lurraldeak dituen bereizgarriak lantzearen bidetik jo beharko genuke»

**Nekazaritza** • Landa Ingurunearen Astea atzo hasi zen Tolosan; landa eremuaz eta parke naturalez aritu ziren.

**INIGO TERRADILLOS**

«Mendia gure identitatearen bereizgarri da, eta bizkar eman izan diogu beti. Nekazaritza sendotu eta etorkizun oparoa izan dezan nahi badugu, hori aldatu behar da, eta gure sentitu behar dugu, errekuiperatu egin behar dugu». Gogoeta hori ekarri zuen gurera atzo, Juanan Gutierrezek Euromontanako lehendakariordeak. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Landa Garapeneko Sailak Landa Ingurunearen Astea antolatu du, eta Tolosan izan zuen estreinakoa ekitaldia.

Gutierrezek azaldu zuenez, Gipuzkoa lurralde «berezia» da, zonalde menditsua delako, eta «beste lekuetan ez bezala, mendia inguruan edo menditik oso hurbil bizi garelako, hau da, mendia gure hiri eta herrien parte delako, gisa horretako ezaugarriak dituen bakarretakoa izanik».

Horrek onurak nahiz zailtasunak sor ditzake Gutierrezen arabera: «Erliebearren ikuspegitik lurralde zail bat dela esan dezakegu menditsua delako eremuaren



Zerkasian egin zuten atzo, Landa Eremuaren Astearen lehen ekitaldia. Eskuinean, Juanan Gutierrez Euromontanako lehendakariordea. ir.

%80a, baina, era berean, lurralde estrategiko bat da Gipuzkoa, komunikabideen kokapenagatik, bizi kalitatearengatik edota erakargarritasun turistikoarengatik».

### Aukera ugari gure nekazaritza garatzeko

Erliebeari loturiko zailtasunegi egun nekazari bizi dituzten beste hainbat faktore ere batu behar zaizkiela gogoratu zuen Euromontanako lehendakariordeak: «Zerbitzuen, industriaren eta erakuntzaren ondoren, soilik ekono-

mianen %0,6a hartzen du nekazaritzak gurean, diru laguntzak murrizten ari dira, ekoizpen handiak babesten dituzte txikien kalterako eta kostuak geroz eta handiagoak dira, besteak beste».

Dena den, guztia ez dela iluna eta alde onak zein diren eta horiek baliatzen jakin behar dela azaldu zuen. «Kontuan hartu behar da gizaritateak badakiela landa eremuak garrantzia duela, ondo jatea gustatzen zaigula eta kalitatezko produktuak ekoizten ditugula; hala, gure mugetatik at ere gure

produktuen kalitatearen berri badute».

Juanan Gutierrezen arabera, «garrantzitsua da ekoizpena hobetu eta garatzeko lan egitea berri-kuntzak sartuz», baina bere ustez, «gure lurraldeak eskaintzen dituen bereizgarriak lantzearen bidetik jo beharko genuke, eta hori egiteko herritarrek ulertu eta sentitu behar dute lurraldeak «kulturalki eta ikuspegiari dagokionez balio handia» duela. «Mendia bizkar emateari utzi behar dio, eta gure sentitu, eta gure nekazaritzak izan duen eta izango duen garrantziaz ohartarazi behar ditugu herritarrok».

### Igandera bitarte ekitaldiak

Lehen hitzaldiaren ostean, Pagotako parke naturalaren inguruan jardun ziren, eta mahai inguru ere egin zuten parke naturalen eta landa garapenaren inguruan. Asteazkenean jarraipena izango dute Aralarren, Zestoan eta Aian, eta mendiko gazta, bertako okelaz edota gure kulturaren sus-traiez ariko dira, besteen artean. Halaber, Landa Ingurunearen Asteak San Isidro Egunarekin egingo du bat larunbatean.

**@ Facebook.** TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK Facebook sare sozialean ere dagoeneko badu bere ataria. Eskualdeko egunkariaren lagun eginez gero, zuzenean jaso ahal izango dituzu zure herriko azken albiste guztiak. Gero eta lagun gehiago atxikitu dira, eta jada beste modu batera jasotzen dute informazioa lagun horiek. Bestalde, egunkariaren webgunera, [tolosaldeko-hitza.info](http://tolosaldeko-hitza.info), lotura zuzena du eta honen bitartez ere heldu zaitezke. Sar zaitzete gure sare sozialean ere.

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

## 'Bayoneta'-ren bosgarren alea aurkeztuko dute gaur, Kultur Etxean

**Kultura** • Jurgi Kintanak Napoleonen garaian euskararen egoera zein zen Tolosan azalduko du.

**ERREDAKZIOA**

*Bayoneta* aldizkariaren bosgarren alea aurkeztuko dute gaur, Kultur Etxean, 20:00etan. Xabier Alberdi Lonbidek aurkeztuta, Jurgi Kintanak hitzaldia emango du, eta une hori baliatuko dute aldizkaria banatzeko. *Euskara ezkatua: Tolosa 1810ean* hitzaldian Napoleonen inbasio garaian euskararen egoera soziala zein zen azalduko du. Tolosan, kaleko bizitza ia osoa euskalduna zen, baina agiri idatziek gaztelaniara itzulita jasotzen zuten errealitate hori. Horregatik «interesgarria» da berriki agertu den garai hartako euskarazko gutun bat, diglosia orokorraren erdian kontrapuntu bat emateaz gain, zenbait auzi birpentsatzeko aukera ematen baitu.

## T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

**OSASUNA.**

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

**Tolosa.**

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbolak:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 943 693930

**GARRAIOAK.**

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxi:** 943 670420

**Taxi (Leitza):** 608 873016

**BESTERIK.**

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Lurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

## Iragarki laburrak

**LANA**

■ **Euskalduna.** Mutil euskalduna behar da lanerako. 25-30 urte bitartekoa. Deitu 13:00etatik 15:00etara bitarte, 649 51 09 41 telefono zenbakira.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



## Uraren inguruko berriak eman dizkiete

**BERROBI** ● Pasa den astean, eskualdeko hainbat ikastetxetako haurrak beraien herrietako udal ordezkariekin izan ziren ura gaitzat hartuta. Atzo-koan ordea, Berrobiko haurren txanda izan zen. Haur talde bat udaletxera joan zen, udal ordezkari, eskolan hilabete hauetan jorratu dutenaren

berri emateko. Berrobitarrek ere, aurretik izan dute landu beharreko gaia. Ikasturtean zehar, uraren inguruan lanketa ezberdinak egin dituzte. Udal ordezkariak aurrean zituztela aprobetxatuz, Berrobiko gabezien berri eman zieten. ESTI EZEIZA



Eskualdean, Villabonako Osasun Zentroan izango luke eragina neurri berri honek. E. MAIZ

## Larunbatetan Osasun Zentroa itxi egin nahi dute

**Villabona** » Neurri berri hau ekainean jarriko lukete martxan. Kaltetuak, Osasun Zentroaren erabiltzaileak izango dira.

### ERREDAKZIOA

Osakidetzak ekainean neurri berri bat martxan jartzeko asmoa du. Proposamen berri horrek, eskualdean Villabonako Osasun Zentroan izango luke eragin zuzena eta larunbatetan atek itxi beharko litzuke. Ateak ixtearen ondorioak berbiz, Villabonako Osasun Zentroaren erabiltzaileek jasan behar-

ko dituzte. Ondorioz, larunbatetan, Villabonan zerbitzua zuten gaixo guztiak, Tolosako Osasun Zerbitzura joan beharrean aurkituko dira.

Josu Arrieta, Osakidetzako langile eta Lab sindikatuko kidearen esanetan «itxiera honek ez du inolaz ere Villabonara joaten diren gaixoen asistentzia hobetzen. Orain arte jasotzen zuten asistentzia bera jasoko dute Tolosan» azaldu digu. Bere ustetan: «gaixoei zerbitzua okertu egiten zaiela esan daiteke, zeren beraien etxetik urrun dagoen zentroa joatea behar harko dute, eta joan-etorrian ezbe-

harra gertatzeko arriskua handiagoa izango dute» azpimarratzen du.

Oraindik, langileei, ez diete proposamen honen inguruko berririk eman. Arrieta ustez: «dirua aurrerantz izan daiteke Osakidetzak hartu duen neurriaren arrazoi nagusia». Informazioa biltzen ari dira eta neurria «garrantzitsua» dela adierazi nahi izan du, «Villabona eta inguruko biztanleei eragiten die, eta ez beraien bizi baldintzak hobetzeko, okertzeko baidirik». Bestetik, larunbatetan etxetara egiten ziren bisitak ere «pribatizatu» egin nahi dituztela azaldu nahi izan du.

## L Laburrak

### Koadrilen eguneko bazkari eta afariko txartelak salgai

**ANOETA** ● Maiatzaren 29an izango den Koadrilen Eguneko bazkari eta afarirako txartelak salgai daude, 8 euroren truke. Arkupe, Itzuli, Hizea eta Buztina tabernetan eros daitezke. Azken eguna hilak 23 igandea izango da. Hortik aurrera 15 euro ordaindu beharko da eta ez da ziurtatzen apuntatzeko aukera.

### Oinkari eta Korrontziren grabaketarako ikusle bila

**VILLABONA** ● Korrontzi folk taldeak eta Oinkari dantza taldeak ostira-lean, hilak 14, emanaldi berria grabatuko dute Miramongo ETB-ren egoitzan. Emanaldiaren grabaketa burutzeko ikusleak behar dituzte. Publikoan parte hartu nahi izanez gero, Villabonatik grabaketara joan eta etortzeko autobusa ezarriko dute doan. Interesatuak 660 139 380 telefonora deitu beharko dute lehenbailehen. Autobusa 18:30ean irtengo da Olaederra Kiroldegitik, grabaketatik buelta 23:00 aldera izango da.

## Txartelak erosi edota izena emateko azken eguna hilaren 13a izango da

**Irura** » Kultur Astearen baitan, besteak beste, afari herrikoia eta Barreterapia ikastaroa izango dira.

### ERREDAKZIOA

Irurarrak aurtengo Kultur Astea ia prestatua dute eta herritarrei, txartelak erosi edota izena emateko azken egunak direla gogorarazi nahi diete.

Hilaren 15ean, San Isidro egunez afari herrikoia egingo dute. Zarretxe Jatetxean 21:00etan izango da eta dantza eta kantuaz girotua izango da. Txartelak erosteko azken eguna hilaren 13a izango da eta 15 euro ordaindu beharko da. Barreterapia ikastaroa doan izango da baina izena udaletxean eman beharko da hilaren 13a baino lehen. Hilaren 17 eta 19an, 19:00etatik 20:30era izango da.



Emanaldiko une bat. HITZA

### Herriko eragile desberdinei zuzendutako deialdia

**IBARRA** ● Benito Izagirre kultur etxean bilera egingo dute gaur 19:30ean herriko hainbat eragilek. Bertan, Ibarako Udalak txozna eta diru laguntzen inguruan hartu dituen neurri berrien inguruan mintzatuko dira. Aurrera begira zer egin daitekeen ere aztertuko dute. Horregatik, «bilerara agertzea garrantzitsua» dela azaldu dute ekimenaren sustatzaileek. Herriko talde, eragile eta abar gonbidatu dituzte beraz gaur egingo duten batzarrera.

## KAZETARIAK (Erref.: 2010-LPKAZ) Berria egunkariak kazetariak behar ditu ordezkapenatarako lan poltsa osatzeko.

### Eskatzen

- Kazetaritza ikasketak izatea
- Kazetari lanetan esperientzia izatea
- EGA edo baliokidea den euskara maila izatea

### Kontuan hartuko da:

- Quark X Press programa erabiltzen jakitea
- Frantsesez eta ingelesez jakitea
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea

Bidali curriculuma gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora, erreferentzia zehaztuta, maiatzaren 10a baino lehen.

# Erniopeko eta Berastegiko mendi martxa euritsuetan jende asko



Eguraldi kaxkarra izan arren, 310 mendizale bildu ziren Erniopeko VII Mendi Martxan. INAKI LOPETEGI



Berastegiko XVIII Mendi Martxan, herriko 46 neska-mutikok hartu zuten parte. LEIRE LABAÏEN

**Mendia** » Berastegin 132 mendizale irten ziren, 46 txikiaren ibiladiaz; Erniopekoan 310 elkartu ziren.

## AGURTZANE BELAUNZARAN

Agurde mendi martxan eguna izan zen eskualdean. Ernio inguruetan eta Berastegiko mendietan gozatu zuten bertan bildutako mendizaleek.

Erniopeko VII mendi martxako antolatzaile lanetan aritu den Isidro Lertxundik balorazio positiboa egin du: «eguraldiak asko mugatu bazuen ere, jendearen erantzunarekin oso pozik gaude».

310 pertsonak, Ernio inguratzen duten 8 herrietako ibilbideaz gozatu zuten. «Garai bateko basabide zaharrek osatzen duten 48 kilometroko ibilaldia ezagutaraztea izan da gure helburua. Ibilbide txikia ere jende askok hautatu du» azpimarratu du Lertxundik. Mendizale gehienak gipuzkoarrak baziren ere, Bizkaitik eta Arabatik etorritakoak ere baziren.

Jendearen erantzun ona ere eskertu dute antolatzaileek: «Bai parte hartzaile eta baseritarren aldeak ere eskertzekoa da izandako jarrera. Mendizaleek, ibilbidea txukun-txukun utzi baitzuten eta baseritarrek ibilbidean animaliek sor zitaketen oztopoak eragotzi zituzten».

Aurtengo mendi martxan, 10

euro ordaindu behar izan dute parte hartzaileek. «Orain artekoetan ez zen ordaindu behar, bakoitzak bere janaria bere motxilan eramaten zuen. Aurten ordea, 10 euro ordaindu dituzte parte hartzaileek eta janari eta edari puntuak jarri ditugu ibilbidean eta jendeak eskertu egin digu». Ibilbidean zehar, herrietako elkarteetakoek salda, txorizo, haragi egosi eta fruta postuak jarri zituzten. Bi urte barru Larraul izango da mendi martxaren abiapuntu.

## Berastegiko tontorretan

Berastegiko mendi martxa antolatu duten Basurde elkarteetakoak ere oso gustura daude igandekoarekin. Halaxe aipatu du Javier Salbarredik: «oso pozik gaude jendearen erantzunarekin, eguraldi kaxkarra egin bazuen ere, arrakastatsua izan da aurtengoa».

132 mendizalek parte hartu zuten ibilaldian. Herriar asko tartean, baita gipuzkoar ugari eta Nafarren batzuk ere. Tontorrez-tontor, Berastegi, Leitza eta Elduain inguruko mendiak zeharkatu zituzten, guztira 31 km eginaz. Mandoegin eta Urepelen, kazkabarrak eta hai-zeak gogor eraso zuela aipatu du Salbarredik. Hotzari aurre egiteko, salda beroa, haragi egosia eta fruta postuak jarri zituzten ibilbidean. Berastegiko eskolan ere dutxa beroa hartzeko aukera izan zuten mendizaleek.

Guraso elkarteak antolatuta, ibilaldi motzagoa egin zuten herriko txikiak. Guztira, 46 neska-mutikok parte hartu zuten hiru orduko ibilaldian. Berastegiko plazatik irten ziren, San Lorentzora igo, handik Mugara eta berriro herrira jaitziz. Diploma eta oparia jaso zituzten amaieran egindako esfortzuagatik.

## Harpidedun egiten bazara aisialdirako bonu bat opari

Eroski Bidaiak eta Baskinbox etxean eskutik.

40 eskaintzatik gora aukeratzeko Euskal Herrian zehar.

Gozatu berria



Hotel bateko egonaldi bat, 2 lagunentzako bazkari bat edo abentura eta kirol ekitaldi bat izango duzu aukeran.

HARRERMANETARAKO  
943-30 43 45 • harpidetza@berria.info



Uztailaren 15ean

Tenerifeko astebeteko egonaldia zotz egingo dugu BERRIaren harpidedunen artean, Eroski Bidaiak-en eskutik.



Orain, beste arrazoi bat BERRIaren harpidedun izateko.



AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ. **berria**



Ernio inguratzen duten 8 herrietako basabideak zeharkatu zituzten parte hartzaileek. INAKI LOPETEGI

# Eskulanekin hasi dute haurrek ekintzaz betetako Eskolaren Astea

**Lizartza** » Atzo ekin zieten jardueri eta ostiralera arte luzatuko dira; ekitaldi gehienak arratsaldeetan izango dira.

## ERREDAKZIOA

Atzotik, XXI. Eskolaren Astea ari dira ospatzen Lizartzako herri eskolan. 70 ikasle inguru ditu honek, eta denak ari dira hartzen parte ekintzetan.

Atzo, eskulan tailerrarekin eman zieten hasiera jardueri. Bazkalostean, pilotalekuan elkar-tu ziren denak, eta taldetan banatuta, gauza ezberdinak egin zituzten. Haur Hezkuntzakoek koloretako makarroiekin, kareta eta lepokoak egin zituzten. Handienek berriz, Lehen Hezkuntzakoek, manuak, argazkiak jartzeko euskarriak eta orri markatzaileak. Iluntzean berriz, puntu txapelketa egin zuten. Hala, ikasle bakoitzak eskolaz kanpoko lagun bat hartu zuten bikote, eta kartetan aritu ziren.

## Aste guztian ekitaldiak

Urte ugari daramatzate Lizartzan, Eskolaren Astea ospatzen. Hori dela eta, duten arrakastagatik,

ekintza asko finkatuta dituzte jada. Egunero, bazkalostean eta iluntzetan egiten dituzte era ezberdinetako jarduerak. Gaur esaterako, bizikleta martxa egingo dute herri-rik barrena, baina hori bai, eguraldiak laguntzen badu. Iluntzean berriz, 19:30ak aldera, afari-merienda izango da pilotalekuan, Guraso Elkarteak lagunduta.

Bihar arratsaldean, Eskolaren Asteko ekitaldi jendetsuenetako bat izango da, jaialdia. Kultur-gunean, 19:00etan, ikasturtean zehar prestatutako emanaldi bat aurkeztuko dute haurrek, lizartzatarren aurrean.

Ohitura onak ez direlako galdu behar, urtero bezala, beste herri txiki bateko ikasleak gonbidatu dituzte aurten ere, Lizartza ezagutzeko. Oraingoan, Zizurkilgo San Millan ikastetxeakoak dira gonbidatuak. Hala, etzi, eguna Lizartzan igaroko dute hauek. Honez gain, egunari amaiera emateko, iluntzean, 19:00etan, *Kiriku eta basapiztiak* filma ikusgai izango da kultur-gunean.

Azkenik, ostiralean, egun pasa joango dira ikasle guztiak. Haur Hezkuntzakoak Goierrira, Olaberriara hain zuzen ere, eta Lehen Hezkuntzakoak berriz, Iruñera, Planetariuma bisitatzea.



Lehen eta Haur Hezkuntzako ikasleek eskulanak egin zituzten pilotalekuan, atzo arratsaldean. E. EZEIZA



## Denboraldia Senda Vivan agurtuz

**LEITZA** » Oialde Txoko elkartekoek Senda Viva natur parkera irteera egin zuten herenegun. 30 gaztetxok bi begiraleren laguntzarekin, txangoarekin agur esan zieten denboraldiari. Goizean goiz autobusa hartu eta Erriberarantz abiatu ziren. Eguraldia gorabeheratsua izan zen arren, jolas parkean zeuden makina askotan

igotzeko aukera izan zuten, besteak beste, Boshleigh mendi errusiarrean eta *Caida libre*-an. Azken honetatik Bardeak ikusten ziren. Bestalde, animalia basatiak bertatik bertara ikuskatu zituzten. 19:00etan parkeko sarreran opariak erosita, autobusera itzuli ziren Leitzako bidea hartuz. HITZA

## Entzia mendizerra ezagutzeko aukera

**Leitza** » Mendibil mendi taldeak iganderako, inguru hauetara irteera antolatu du; izena emateko epea zabalik dago oraindik.

Antolatzaileen aurreikuspenen arabera, mendizaleek lau ordu eta erdi beharko dituzte ibilbidea egiteko. Interesatuak etzi bitartean eman dezakete izena. Hau Astiz eta Maimur liburu dendetan nahiz [mendibilaurrera@hotmail.com](mailto:mendibilaurrera@hotmail.com) helbidean egin dezakete.

## ERREDAKZIOA

Mendibil mendi taldeak irteera antolatu du asteburu honetarako. Leitzatik Araba aldera joango dira oraingoan. Entziako mendizerran zeharkaldia egiteko aukera eskaintzen du Elkarteak.

Igandean 7:30 aldera aterako dira Oialdeko paretik, eta autobusez Entzia aldera bideratuko dira. Txangoan ondoko gainak zeharkatuko dituzte: Andoin (610 metro), Atau (1.155 metro), Mirutegi (1.166 metro), Ballo (1.197 metro), Bikuñako gaina (1.090 metro), Okarizko gaina (1.030 metro) eta Opakua mendatea (1.020 metro).

## Natura aurrez aurre

Nafarroako Urbasa mendizerraren mendebaldean hazten da Entzia mendizerra. 4.991,4 hektareako eremu natural hau Arabako ipar-ekialdeko mugan dago eta oso erraza da bisitatzeko. Horren zatirik handiena goi-lautada da eta hegoaldean zein iparraldean bat-bateko jausia du Arabako Lautadara batetik eta Haranera bestetik.

Behor-taldeak, latxa ardiak, hegazti ezberdinak eta behiak ikusi ahal izango dituzte larre eta sasrakadietan, inguru hau bisitatzea erabakitzen dutenek.

E **Emaitzak****PILOTA****Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa, itzuleraokoak****AZPEITIA-TOLOSA**

Kadeteak	11-22
Jubenilak	22-3
Nagusiak	22-3

**AZKOITIA-ALEGIA**

Kadeteak	8-22
Jubenilak	8-22
Nagusiak	22-18

**DONOSTIA-ALBIZTUR**

Kadeteak	14-22
Jubenilak	22-21
Nagusiak	22-17

**HERNANI-AMEZKETA**

Kadeteak	22-4
Jubenilak	22-1
Nagusiak	22-9

**Hurrengo kanporaketarako txartela lortu duen eskualdeko talde bakarra Alegia izan da.**

**FUTBOLA****Erregional Ohorezko Maila**

Hondarribia-Tolosa CF 3-0

**SAILKAPENA**

1. Zarautz (69 p.); 2. Pasajes (62p.); 3. Aurrera de Ondarrea (62 p.); 4. Tolosa CF (54 p.)

**1. Erregionala Igoera Fasea**

Lengokoak-Amaroz 4-1

**SAILKAPENA**

1. Kostikas-Miren Bihotza (37p.); 2. Alerru (35p.); 3. Mariño (34p.); 7. Amaro (11 p.)

**Intxurre KKE**-Mutrikuarrak 6-1

**SAILKAPENA**

1. Irun (41p.); 2. Sto. Tomas Lizeoa (39 p.); 3. Mondragon (31 p.); 4. **Intxurre (29 p.)**

**ARETO FUTBOLA****Nazional A Maila**

Elem. Peñucas-**Lauburu KE** 8-1

**SAILKAPENA**

1. Zierbana (67p.); 2. Zalatambor Area 99 (60p.) 3. **Lauburu KE (59p.)**

**Nazional B Maila**

**Transp. Lakunza-Laskorain** 3-5

**SAILKAPENA**

1. Alerru Algeposa (66p); 2. **Laskorain Ikastola (64p.)**; 3. Concepto-Creatch (60 p); 10. **Transportes Lakunza (31p.)**

**SOKATIRA****Euskal Herriko Lur Gaineko Txapelketa, 680 kilo**

1. Goiherri A	15 tanto
2. Gaztedi	12 tanto
3. Mutriku	9 tanto
4. <b>Areso</b>	6 tanto
5. Getxo	3 tanto
6. Goiherri B	0 tanto
9 tanto	

**Herri Urrats Torneoa**

1. Araba (Badaiotz)  
2. **Gipuzkoa (Ibarra)**  
3. Nafarroa Garaia (Imotz-Basaburu).



Aresoko tiralariak duela bi urteko Euskal Herriko Txapelketan. HITZA



Tolosako Bidebide Ibizas saskibalo taldeko jokalaririk. HITZA

## Tolosako Bidebide Ibizak Lehen Mailan jarraituko du

**Saskibaloia**

Zuzendaritzak denboraldi honetarako etorkizunari begirako apustu arrisksua egin zuen.

**ERREDAKZIOA**

Bidebide Ibizak uste guztiak gaindituz Lehen Maila Nazionalen mantentzea lortu du bi jardunaldiren faltan.

Denboraldi hasieran, klubaren arduradunek etorkizunera begira apustu handia egin zuten, taldea asko gaztetuz eta harrobiaren aldeko apustu sendoa eginaz. Ordu artea ezinbestekoak ziren Kike Konde, Kaiet Vidaurre eta Fernando Mindegia beteranok (denak 30 urtetik gorakoak), junior mailatik zetozen Julen Aranzabal, Jon Azaldegui, Jon Mendiluze eta Jonnan Apaolazari (azken hau BKL-tik etorria) lekua egin zieten. Jokalari hauek denboraldia 17 urterekin hasi zuten eta etorkizun

oparua dute. Denen buru etxeko entrenatzailea den Yon Gonzalez izan da, 23 urterekin mailako entrenatzaile gazteena bihurtuz.

Zuzendaritzaren apustua oso arrisksua baina ongi aztertua izan zen. Hasiera hasieratik taldeari presioa kendu nahi izan zitzaion eta helburua lasaitasunez lan egitea zen, emaitzak alde batera utziz.

Lehen partidaren faboritoetako baten etxean lortutako garaipena kontutan hartu gabe, denboraldi hasiera oso konplikatua izan zen, porrota porrotaren atzetik irabazteko moduko aurkari batzuen aurrean eta beti ere errenta txikiakin. Urdinek ez zuten lortzen mailari erritmoa hartzea, batik bat etxean eta honek taldearengan eragina izan zuen. Gainera, Eguberriekin batera, bi baja garrantzitsu izan ziren, Mikel Txiki, arrazoi pertsonalengatik eta Mendilu. Horrela taldea antolatzaile bakarrarekin geratu zen.


Baina horren eraginez Gonzi-

ren mutilak martxan jarri ziren pixkanaka. Aldian behin Kaiet-en laguntzarekin eta junior taldeko Ignacio-k botatako eskuarekin (teknikekin dituen arazoez gain), taldea hazten joan zen eta garipen garrantzitsuak lortu ziren Baskonia eta Easoren aurka. Honela, jaitsiera fasea azken aurreko postuan hasi zuten, baina maila mantentzeko aukerak zabalik zuden.

Bigarren fasea zoragarria izan da. Sentsazioak onak ziren eta astebarruko lanak eta gaztetasunak ematen duen freskurak euren alde jokatzeko zuten. Horrela, bertakoak eta kanpokoak harrirituz (klubaren barruan konfiantza erabateko baten ere), urdinek 8 partidatik 7 irabazita jaitsiera faseko lidergoa eskuratu dute eta baita bi jardunaldiren faltan matematikoki maila mantentzea ere. Bigarren fase honetan multzoko talderik onena izan da zalantzarik gabe. Gainera, helburua gazteenen parte-hartze erabakigarriekin lortu da.

H **Hilberria****GARBIÑE MUNDUATE ARRUBARRENA**

(Garbiñe Eskisabel gure lankidearen ama)



Maizpide eskultegikook bat egiten dugu familiarekin une latz hauetan.

Hileta-elizkizuna GAUR, ASTEARTEA, arratsaldeko ZAZPIETAN izango da Aitaungo SAN MARTIN elizan.

LAZKAO  
2010eko  
maiatzaren 11

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA  
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40  
ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900



Igor Sasiain ahalegin betean Espainiako Junior Txapelketan. HITZA

## Hernandezek eta Sasiainek bigarren postua lortu dute Espainiako Txapelketan

**Halterofilia** » Guztira Danena-Olaederrako sei pultsulari lehiatu dira Espainiako Junior Txapelketan.

**ERREDAKZIOA**

Espainiako Junior Txapelketa, 20 urte azpiko maila, jokatu berri da Xixonen eta bertan parte hartu dute Danena-Olaederra Haltero-

filia Taldeko hainbat pultsularik. Emaizta onenak Iker Hernandezek eta Igor Sasiainek lortu zituzten, bigarren postua lortuz. Hernandezek, 18 urterekin, 62 kiloko mailan lortu zuen. Sasiainek, 18 urterekin ere, 69 kiloko mailan eskuratu zuen.

62 kiloko mailan 16 urteko Aritz Erizek parte hartu zuen eta 11. egin zuen. 69 kiloko mailan, 16 urte dituen Adrian Sasiainek 11. postua lortu zuen ere. 85 kiloko mailan 20

urteko Mikel Quintana 6. sailkatu zen eta 16 urteko Iñaki Zubelzu 8. postuan.

Danena-Olaederratik azaldu dutenez, Iñaki Zubelzu oso ondo aritu zen bere txandan eta 11 kilotan hobetu zuen bere marka. «Etorkizun handiko kirolaria izan daiteke Zubelzu, beti kirol honi behar den garrantzia ematen badi», azaldu dute. Adrian Sasiain ere ondo aritu zen 2 kilotan bere marka pertsonala hobetuz.

## Laugarren postuan hasi du Aresok Euskal Herriko Txapelketa

**Sokatira** » 680 kiloko mailan lehiatu dute aurreko asteburuan eta oraindik beste bi saio falta zaizkie jokatzeko.

**ERREDAKZIOA**

Euskal Herriko Sokatira Txapelketa, gizonezkoen mailan, hasie-

ra eman diote Erandio Goikoan (Bizkaia) pasatu berri den asteburuan. 680 kiloko mailan hasi dira eta aurrerago beste mailetan jokatu dute. Aresok parte hartu zuen eta sei taldeetatik laugarren postua lortu zuen.

Aresoarrek, beraz, hiru puntu eskuratu dituzte. Txapelketa osatzen duten beste bi saioak hilaren 16an eta 23an jokatu dira.

**Ibarra bigarren Herri Urratsen** Herri Urrats jaialdiaren baitan emakumezkoen goma gaineko sokatira proba jokatu zen Araba, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia artean. Gipuzkoa ordezkatzen Ibarra taldea aritu zen eta bigarren amaitu zuen. Finala jokatzeko txartela Nafarroa Garaia irabazita lortu zuen eta gero finalean Arabaren aurka galdu zuen.

## Laskorainek hiru puntu lortu ditu Transportes Lakunzaren etxean

**Areto futbol** »

Villabonako taldea irabazten hasi arren, tolosarrak nagusitu ziren amaieran.

**ERREDAKZIOA**

Denboraldiaren amaiera gerturatu doan heinean, taldeek jokoan izan duten altxorraren garrantzia biderkatzen joaten da jardunaldiz-jardunaldi eta apustuan ipinitako puntu kopurua aldatu ez izanagatik, mundu makroekonomikoarekin konparaketa bat egin ezker, garaipena edota porrotaren arteko aldea interesak kobratu edo interesak ordaintzean datza. Larunbatean Laskorainek hiru puntu jarri zituen jokoan eta guzti horien balio nominala oso-osorik berreskuratzeaz gain, indarberriketan bilakaturako dosi garrantzitsu bat kobratu zuen interes gisa.

Errespetu handiz jokatu ziren estreineko minutuak, aurkaria aztertu eta gutxi arriskatuaz hasieran behintzat, etxekoak 1-0 aurreratu arren, Murgiren bi golekmargailua biratu eta atsedendira 1-2ko itzaropentsu batekin aldagelatu ziren Alonso eta Javiren mutikak.

Villabonakoek ordea, sailkapenak esaten duenaren osobestelako talde dotorea osatzen dute eta bigarren zatia hasi bezain pronto ipiniko zuten berdinketa elektronikoa, hori gutxi balitz, Barriolak aurreratuko zituen beste behingoz horitxoak baina 3-3koa berehala

etorriko zen. Endikaren lan ona arduratu zen laskoraindarrak galbideetik gordetzeaz ondorengo minutu arriskutsuetan, etxekoak nagusitzen ari ziren emeki-emeki baina Alonso entrenatzaileak arkume larrupean mozorrotutako otso harpari bat izaten du beti ezkutaturik sakelean.

Elola *killer*-a soinurik atera gabe sartu zen kantxara, noraezean, alprojenaren irribarra kamuflatuz despistatu itxuraren atzean, baina bere taldeak bidalitako S.O.S. mezuaren jakitun. Bi baloi ukitu, kontrola, *dribling* eta jaurtiketa sareetara 3-4koa goaz markagailura. Betebehar zaila baina ongi burutua, azken 3-5ekoak Telleria zilarrezko beltzargak egin zuen lasatasunaren gola ipiniaz.

Harmailetan ziren Iñaki Egizabal eta Josu Etxeberria Euskadiko Kutxaren langile eta *broker* adituek egindako analisiaren arabera, IBEX-35aren grafikak jasandako kontrako norabidean, Madrilgo burtsaren aste beltza Laskorainen urrezko astean bihurtu da eta Eloorrion edo Tolosan jokatzear diren neurketa interesgarrietan arratsalde bat inbertitzea gomendatzen diote zalegoari, lortu litekeen irabazia egundokoa izan baitaiteke. Txapelketa oraindik ez du jaberik ezagutzen.

Larunbatean Villabonan, Transportes Lakunzaren aurka Joan Javi delegatua, Imanol presantzailea, Alonso eta Javi entrenatzaileak, Endika, Barriola, Telleria, Lander, Gil, Murgi, Beloso, Elola, Joniko eta Aratz izan ziren.



Villabonako Transportes Lakunza taldea. HITZA

bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31800 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	



13°  
8°

GOIZA EURI ARRISK.  
ARRATS. EURI ARRISK.  
BEROENA 14°  
HOTZENA 7°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta/Leitza:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra/Leitza:** 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza/Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



## Saria eskertu du Hodei Trukek

**TOLOSA** «Hodei Truk abesbatzak ohar baten bidez eskertu du OHappy Day! ETBko lehiaketan «finaleko saioan tolosar guztiak emandako laguntza». Abesba-

tza ugarik parte hartu zuten lehiaketa horretan eta jasotako laguntzari esker laugarren postuan klasifikatu zen Hodei Truk, publikoaren saria eskuratuz. HITZA

## A Agurrak



**Zorionak potxolita!**  
**Izadi.** Gaur urtebete!!  
Muxu handi bat! Etxekoak.

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
**agurrak** ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

## A Agenda

### Hitzaldia

■ **Tolosa.** Bayoneta aldizkariaren zenbaki berriaren aurkezpena. *Euskara ezkutatua: Tolosa 1810*ean Jurgi Kintanaren hitzaldia Kultur Etxean, 20:00etan.

### Erakusketa

■ **Tolosa.** *Carnet de voyage. Vuelta de Chile* erakusketa GKO Galleryn. Ekainaren 13ra arte.  
■ **Tolosa.** Adolfo Tannenbaumen argazkiak Aranburu Jauregian. Ekainaren 12ra arte.  
■ **Tolosa.** *Tradiziozko pertsonaiak txinatar txobongilo antzerkian* erakusketa Topic-en. Hilaren 31 arte.

■ **Tolosa.** *Hodeien seme-alabak* panel erakusketa Kultur Etxean, Euskal Fondoaren eskutik. Tolosaldea Sahararekin elkarrekin antolatzen du eta Giza eskubideen egoera Mendebaldeko Saharan da gaia. Hilaren 21ra arte.

### Deialdiak

■ **Ibarra.** Festa Batzordearen bilera udal batzar aretoan San Bartolome jaiak prestatzeko, 20:00etan. Udal Kultura eta Gazteria Batzordeak antolatuta.  
■ **Ibarra.** Ama Birjinaren hilabetea dela eta, hirurogei urte baino gehiagoko ohiturari jarraituz,

meza izango da egunero Izaskun-ge Santutegian, maiatza guztian zehar. Astegunetan, 06:45ean izango da elizkizuna eta igandetan, 11:00etan.

■ **Ibarra.** Bizi Nahi jubilatuta elkarrekin erromeria antolatu du maiatzaren 12an Izaskunen. Izena elkartean eman behar da.

■ **Anoeta.** Herri Lasterketa izango da Jaietan, ekainaren 5ean, heldu (2.600 m) eta haurrentzat, bikote mistoka. Proban 2.600 metroko ibilbidea bete behar da, erdia bikoteak bakoitzak. Izena emateko zerrendak Abraham Olano Kiroldegian daude.

■ **Villabona.** Behar Zana K.E.-k bere urtemugaren festa ospatuko du datorren ekainaren 5ean eta 6an. Elkarrekin 64. urtemuga ospatzeko antolatu den afarian parte hartu nahi duen bazkidea, egoitzan jarrita dagoen zerrendan izena eman daiteke, ekainaren 3ra arte. Bazkideak direnek maiatzaren 3tik aurrera izena eman dezake; bazkideak ez direnek, berriz, hilaren 24tik aurrera aukera izango dute, beti lekuri bategi. Era berean, afaldu ostean egingo den danborradan parte hartu nahi duenak izena eman dezake.  
■ **Tolosa.** VII. Txirrita Mendi Ibilal-

dia maiatzaren 23an, 06:00etan Amezketa Bixente Aterpean, Aierbenean etxean, abiatuta. 45 km eta 12 ordu inguru. Izena emateko, [www.oargiko.org](http://www.oargiko.org), 10 euro sartuz Euskadiko Kutzako 3035 0028 11 0281141038 kontuan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreok alea 20. 943 67 60 13.  
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

**hitzaldia**  
rastri gurekiko:  
**8 urteko lotsagabeberia**  
Izena: Hilabetearen azken 15. eguna  
egunero: maiatzak 12, asteazkoa

**konzentrazioa**  
**Tolosako udalean ustelkeriarik ez**  
maiatzak 14, ostirua, 15. 15:00etan  
aldizkariaren

**Tolosako Esker Abertzalea**

**TOLOSAKO INMARRULADA IKASTETXEA**

**HEZKETA ZIKLOAK**

**Gizarte Integrazioa**

**Haur Hezkuntza**

**Edukazio Infantil**

**Ogasun Dokumentazioa**

**Documentación Sanitaria**

**Diagnosi Irudia**

**Imagen para el Diagnóstico**

**Eradioterapia**

**Erizaintza laguntzaileria**

**Auxiliar de enfermería**

**Farmazia teknikaria**

**Técnico en Farmacia**

**ATE BERRIAK MAIATZAK 13 18:00-19:00**

**www.tolosako-ikastetxea.com**